

DONOSTIA ZINEMALDIAREN 59. EDIZIOKO KARTEL LEHIAKETA

LEHIAKETAREN OINARRIAK

KARTELAK

Aurkeztutako kartelak originalak eta argitaratu gabeak izango dira nahitaez; ezin izango dira beste lehiaketa batzuetan parte hartu duten lanak aurkeztu, ezta argitaratutako norberaren edo besteren lanen kopia edo plagio partzial edo osoak ere. Egileak izango dira oinarri hauetan ezarritakoa betetzearen erantzule. Inola ere ez dira onartuko beste egile edo erakunde batzuen irudiak edo irudien plagioak erabili dituzten kartelak.

Lehiaketa honetan parte hartzeko ezinbestekoa izango da jarraian adieraziko ditugun sail guztietarako kartel proposamenak bidaltzea. Era berean, sail bakoitzeko nahi adina kartel aurkeztu ahalko dira.

Honako hauek dira sailak:

- **Ofiziala.** Zinemaldi osoaren irudi nagusia izango da edizio honetan.
- **Zabaltegi.** Sail honek bi atal ditu. Alde batetik, lehenengo edo bigarren lanak aurkezten dituzten talentu gazteen lehiaketa (Zuzendari Berriak) eta, bestetik, beste nazioarteko zinemaldietan aurkezturiko film garrantzitsuei dagokiena (Perlak).
- **Horizontes Latinos.** Soilik Latinoamerikatik etorritako filmen lehiaketari dagokion atala.

BERTSIOAK ETA EGOKITZAPENAK

Lehiaketaren irabazleak ekitaldia sustatzeko, jakinarazpenetarako eta seinaleztatzeko hainbat bertsio eta egokitzapen emango dizkio Zinemaldiari, hark ezarritako epeen barruan.

Bertsio eta egokitzapen horiek kartel ofizialaren eta Zabaltegiaren kartelaren irudiaren arabera izango dira. Honako hauek izango dira:

Kartel ofizialarenak:

- **Kursaal jauregiko mendebaldeko fatxada (neurria: 70x20 m).**
Kursaal jauregiko mendebaldeko fatxadan biniloan errotulatuko den piezaren diseinu grafikoa.
- **Auditoriumeko photocalla (510x313 cm).**
Kursaal jauregiko auditoriumaren sarreran ipiniko den piezaren diseinu grafikoa. Zinemaldiko gonbidatuei egingo zaizkien argazki eta ikus-entzunezko grabaketetan hondo korporatibo gisa erabiliko da.
- **Prentsaurrekoetarako aretoaren atzealdea (950x350 cm).**
Kursaal jauregiko prentsaurrekoetarako aretoan ipiniko den piezaren diseinu grafikoa. Zinemaldiko gonbidatuei egingo zaizkien argazki eta ikus-entzunezko grabaketetan hondo korporatibo gisa erabiliko da.
- **Faroletako banderolak (73x175 cm)**
Donostia Zinemaldia dela-eta, hiriko hainbat lekutako faroletan apaingarri gisa ipiniko den piezaren diseinu grafikoa.
- **Gonbidatuentzako poltsa.**
Zinemaldira etorriko diren guztiei emango zaien poltsaren diseinu grafikoa. Elementu honek folio tamainako hainbat dokumentu sartzeko nahikoa leku izan behar du. Poltsen formaren eta materialen inguruko proposamenak onartuko dira.
- **Emanaldien goiburuak:**
Zortzi segundoko moldaketa grafiko biziduna, Donostia Zinemaldiko emanaldi guztietan, saio eta ziklo guztietan, emateko.
- **Edizioko paperezko gaiak:**
Dagokion urteko Zinemaldiaren edizioko paperezko gaien diseinu grafikoa: karpetak, gonbidapenak, oharrak, dokumentuak eta abar.
- **Edizioko akreditazioak:**
54x85 mm-ko bi akreditazio-ereduren diseinu grafikoa, 59. Zinemaldiak irauten duen bitartean gonbidatuek eta langileek erabil ditzaten.
- **59. edizioaren aurkezpena:**
Aurkezpenerako gonbidapenaren diseinu grafikoa, prentsan edizioa sustatzeko pieza baten diseinu grafikoa eta, hainbat lekutara eramateko edizioko kartelak eta edukien deskribapena bilduko dituen pieza baten (programazio-aurrerapena) diseinu grafikoa eta maketazioa.



- Edizioko argitalpenak:
Honako argitalpenen azalaren diseinu grafikoa eta maketazioa:
Ongietorri gida eta The Industry Club gida.

Zabaltegi kartelarenak:

- Zabaltegi Topaketen atzealdea (400x225 cm.)
Victoria Eugenia antzokiko Klub aretoan jartzeko piezaren diseinu grafikoa. Zinemaldiko moderatzaileei, hizlariei eta gonbidatuei egingo zaizkien argazkietan eta ikus-entzunezko grabaketetan hondo korporatibo gisa erabiliko da.
- Zabaltegi Topaketen sarrerako kartela (200x300 cm)
Victoria Eugenia antzokiko Klub aretoko sarreran, jarduera horien adierazle eta apaingarri gisa, ipiniko den piezaren diseinu grafikoa.

Era berean, kartel horien guztien moldaketa bat eskatuko da, gerora bertikalean, etzanda eta zirkulu-forman (CD) erabiltzeko.

INSKRIPZIOAK ETA LOGOTIPOAK

Kartel guztiek izan beharko dituzte argi eta garbi ikusteko moduko logotipoak eta inskripzioak. Kartelen batek ez baditu logotipo guztiak biltzen erakundeak lehiaketatik kanpo utzi ahalko du.

Jarraian zehaztuko ditugun logotipoak honako web orri honetan deskargatu ahalko dira: www.sansebastianfestival.com/admin_img/documentos/logotipoak_2011.zip

Kartel guztiek bildu beharko dituzte honako legenda eta inskripzio hauek:

OFIZIALA:

Inskripzioak: 59 Festival de San Sebastián, Donostia Zinemaldia, International Film Festival. 16/24 Iraila – Septiembre 2011.

Logotipoak: 59 Zinemaldia+2016, TVE (Babesle Ofiziala - Patrocinador Oficial), L'OREAL – RENAULT – KUTXA (Laguntzaile Ofizialak – Colaboradores Oficiales)

ZABALTEGI

Inskripzioak: Zabaltegi, 16/24 Iraila – Septiembre 2011

Logotipoak: 59 Zinemaldia+2016



59

DONOSTIA ZINEMALDIA
FESTIVAL DE SAN SEBASTIAN
INTERNATIONAL FILM FESTIVAL 16/24 Iraila Septiembre 2011



HORIZONTES LATINOS:

Inskripzioak: Horizontes Latinos, 16/24 Iraila – Septiembre 2011

Logotipoak: 59 Zinemaldia+2016, AECID

Kartel Ofizialean eta Horizontes Latinos saileko kartelean babesleen eta laguntzaileen logotipoek kartel osoaren tamainaren % 1,50 beteko dute.

Kartel Ofizialaren kasuan, babesle ofizialaren logotipoa laguntzaileen logotipoen bikoitza izango da.

LANAK NOLA ENTREGATU

Kartelen zirriborroak bi modutan aurkeztuko dira:

- Euskarri informatikoan: JPG formatuan eta 48x68 cm-ko tamainan. Bereizmena 72 ppp-koa izango da (1928X2778 pixel), edozein biltegitratze masiboko gailutan.
- Euskarri fisikoa: marjinarik gabe 5 edo 10 mm-ko kartoi-lumaren gainean muntatuta eta 48x68 cm-ko tamainan.

Bestelako formatuan, euskarrian, pixel tamainan edo neurrietan aurkezturiko kartelak zuzenean baztertuko dira.

Kartel-proposamen horiek martxoaren 18tik apirilaren 15era arte aurkeztu ahalko dira Victoria Eugenia antzokian kokaturiko Zinemaldiaren bulegoetan (Okendo plaza 1 – 20004 Donostia), astelehenetik ostiralera, 09:30etik 14:00etara bitarte. Postaz edo mezulari bidez bidalitako proposamenak bulegoetan egon beharko dute beranduenez apirilaren 15ean, ez baita aintzat hartuko zigilu-markaren data.

Posta arrunt ziurtatuz edo mezulari bitartez bidalitako kartelen zirriborroetan argi eta garbi adieraziko dugu aurreko paragrafoan aipaturiko helbidea eta nori zuzenduta dauden: «Donostia Zinemaldiaren 59. edizioko kartel lehiaketa».

Data horren ondoren entregaturiko lanak zuzenean baztertuko dira.

Proposamenekin batera gutun-azal itxi bat bidaliko dugu. Gutun-azalaren barruan izen-abizenak (pertsona fisikoa bada) edo sozietatearen izena eta egile materialen izen-abizenak idatziko ditugu (pertsona juridikoak badira), harremanetarako datuekin batera (helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa).

Aurkeztutako lanak Zinemaldiaren bulegoetan jaso ahalko dira lehiaketa esleitu eta hiru egunera, gehienez 30 egun naturaleko epean. Epe hori amaitu ostean, Zinemaldiak ez du inolako ardurarik izango jaso gabeko lanen gainean eta artxibatu egingo ditu.



DONOSTIA ZINEMALDIA
FESTIVAL DE SAN SEBASTIAN
INTERNATIONAL FILM FESTIVAL 16/24 Iraila Septiembre 2011



IRABAZLEA AUKERATZEA

Aurkezturiko proposamen guztien artean, epaimahai batek **DONOSTIA ZINEMALDIAREN 59. EDIZIOKO KARTEL LEHIAKETAREN irabazleak aukeratuko ditu 2011ko apirilaren 18an.**

Epaimahai hori bost kidek osatuko dute; horietatik bi Zinemaldiaren Zuzendaritza Batzordekoak izango dira eta beste hiruak Zuzendaritza Batzordeak izendatuko ditu baina Zinemalditik kanpokoak izango dira.

Irabazlearen izena **www.sansebastianfestival.com** web orrian argitaratuko da **2011ko apirilaren 18an**. Bestalde, prentsa-ohar batean ere argitaratuko da irabazlea.

LEHIAKETAREN IRABAZLEAK AZKENEKO BERTSIOA ENTREGATZEA

Irabazleak kartelak eta haren moldaketak euskarri digitalean entregatu beharko ditu; euskarri digital horretan diseinu grafiko bektorialeko programa profesional baten bertsio eguneratuan eginiko kartelaren amaierako bertsioa jasoko du, ondoren erabiltzeko eta erreproduzitzeko kalitate eta bereizmen onenarekin.

Kartelak hiru tamainari egokituko zaizkio eta tamaina horietan entregatuko dira: 48x68, 68x98 eta 115x160 cm. Kartel bakoitzeko bi artxibo entregatuko dira; bata trazatua eta bestea trazatu gabe.

Era berean, egileak erabilitako letra-tipo guztiak entregatu beharko ditu. Hala badagokio, digitalizaturiko irudien jatorrizkoak bereizmen handiko TIFF - CMYK formatuan (300 dpi benetako tamainan eta 100 dpi tamaina erraldoikoentzat) eta irudi horiek erabiltzeko inolako murrizketarik ez dutela ziurtatzen duen dokumentua erantsita. Bere diseinuarentzat aurretik sortutako irudiren bat erabiltzen badu, irudi horren eskubideen erosketa-egiaztagiria aurkeztu beharko du.

Zinemaldiak beharrezkotzat jotzen dituen garapen guztietarako erabili ahalko ditu kartel irabazleak eta behar dituen formatu eta euskarri guztietan erreproduzitu, egokitu eta erabili ahalko ditu egileari baimenik eskatu gabe.

SARIA

DONOSTIA ZINEMALDIAREN 59. EDIZIOKO KARTEL LEHIAKETAREN irabazleak SEI MILA EURO garbi (6.000,00 €) irabaziko ditu eta bere izena daraman taloiaren edo banku-transferentziaren bitartez ordainduko zaizkio.

ARAUDI FISKALA

Saria jasotzeko martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretuak eta harekin bat datozen gainerako xedapenek onarturiko Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren Araudian ezarritakoa aplikatuko da. Sariaren PFEZ atxikipena Donostiako Nazioarteko Zinemaldia SAK egingo du eta hark ordainduko dio Ogasunari 439/2007 Errege Dekretuak onarturiko pertsona fisikoen errentaren gaineko araudi honetan ezarritako baldintzetan.

Donostiako Nazioarteko Zinemaldia SA sozietateak dagokion ziurtagiria igorriko du eta saridunari helaraziko dio posta ziurtatu bidez.

Jokoetan, lehiaketetan, zozketetan edo ausazko konbinazioetan parte-hartzearen ondorioz irabazitako sariak ondare transmisioek eragin ez dituzten ondare-irabazitak hartzen dira eta, hortaz, zerga-oinarriaren alderdi orokorrean sartzen dira eta eskalan ordaintzen.

Ezingo zaizkio Donostiako Nazioarteko Zinemaldia SARI erreklamatu ondare-irabazi horren zergak ordaintzearen ondoriozko zenbatekoak, sariaren zenbatekoaren eta zerga-oinarri orokorrean sartutako gainerako errenten zenbatekoaren arabera izango baitira (lana, jarduera ekonomikoak, egotzitako zergak, eta abar).

JABETZA INTELEKTUALA

1.- Lehiaketaren xede diren nortasun korporatiboko kartelen eta gainerako piezen industria jabetzaren eta jabetza intelektualaren eskubide guztiak Zinemaldiko Sozietateari dagozkio. Zinemaldiko Sozietateak elementu horiek eskusiboki erabiltzeak ez du esan nahi izango esleipendunari edo hirugarren pertsona bati jabetza horien gaineko eskubiderik ematen zaionik, eskubide horiek lagatzea kontratuaren baldintzetako bat baita.

2.- Kontratuaren xede diren elementuak eskusiboki Sozietateak erabili ahalko ditu eta horiek sortzen edo diseinatzen parte hartu duen esleipendunak edo hirugarren pertsonak ezingo diete beste bezero batzuei aplikatu. Aipatutakoa lan harremanaren bitartez esleipendunari lotutako langileei ere aplikatuko zaie, baita esleipendunari zerbitzua emateari uzten diotenean ere.

3.- Kartelen eta horien egokitzapenen jabetza intelektualeko eskubideak modu mugagabea lagako dira. Gainerako piezen jabetza intelektualeko eskubideen lagapenak bost urteko iraupena izango du, erabili ziren Zinemaldiaren edizioa

bukatzen den egunetik zenbatzen hasita; karteletako irudiak agertzen diren piezak salbuespenak izango dira, eta horien kasuan lagapena mugagabea izango da.

Horrek ez du alde batera utziko esleipendunak bere komunikazio edo publizitate elementuetan (*bookak*, liburuxkak, eta abar) kartelen diseinua jartzeko aukera, horretarako neurri egokiekin.

4.- Edozein kasutan, kontratutik eratorritako harreman juridikoak eskusiboki Zinemaldiko Sozietatearen eta esleipendunaren edo kontratistaren artekoak izango dira. Sozietatea ez da kontratu bidez esleipenduna ez den beste pertsona batzuei lotuta egongo.

5.- Ulertutzat jotzen da esleipendunarekin lan harremana duten langileek egindako diseinuen jabetza intelektualaren titulartasuna Zinemaldiko Sozietateari lagako zaiola. Nolanahi ere, esleipendunak berarekin lan harremanak dituzten langileei jakinarazi beharko die. Komunikazio falta eskusiboki esleipendunari egotzi ahalko zaio eta horrek ez du arriskuan jarriko jabetza intelektualeko eskubideak eskusiboki Zinemaldiko Sozietateari ematea.